

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### Dirulaguntzen deialdia, 2017ko kirol jarduerak sustatzeko

Udal honek, udalbatzaren 2017ko uztailaren 12ko bilkuran, onarpena eman zien kultura eta kirol jarduerak egiteko laguntza deialdiaren oinarriari.

Bat etorri dirulaguntzen lege orokorrak 9. artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek.

#### 2017ko kirol jarduerak sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak

##### 1. Arauketa

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak arautuko dira azaroaren 7ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, eta dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantza orokorrak xedatutakoaren bidez.

##### 2. Xedea

2.1. Deialdi honen xedea da dirulaguntza ematea, lehiaketa bidez, Iruña Okako udalerrian kirol jarduerak antolatu, sustatu eta haien zabalkundea egiten duten elkarte eta erakundeentzat.

2.2. Oinarriek aipatzen dituzten laguntzak eta dirulaguntzak emateko, oinarrietan ezarritako prozedurari jarraituko zaio, objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioen arabera, eta administrazio jardunen gardentasuna bermatuko da.

##### 3. Gastuaren definizioa

3.1. Dirulaguntza gisa emango dira laguntzak, partez finantzatzen laguntzeko goian deskribaturiko eremuan eta 2. artikuluan aipatutako xedearekin lotura daukan kirol ekitaldi edo jardueraren bat aurten, 2017an, gauzatzeko elkarteek eta erakundeek egiten dituzten gastu arruntak.

3.2. Dirulaguntzak kasu guztietan borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira, eta murriztu eta kendu ahalko dira, baldin eta hori egiteko arrazoiak badaude, eta haiek eman izana ez da aurrekari izango, hurrengo eskaera batzuetarako.

3.3. Jarduera, zeinarentzat dirulaguntza emango baita, diruz lagundutako erakundeak baino ez du egingo. Hartara, haren ardura izango da jarduera egiteko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak lortzea, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzakoak betetzen direla zaintzea, bai eta jarduerari aplikagarri zaion arauditik eratorritako beste betebeharrak ere.

3.4. Deialdi honen aplikazio eremutik kanpora geratzen dira, espresuki, ondasun higigarri eta higiezinak eskuratzeko eta obrak egiteko dirulaguntza eskaerak.

Beste gastu hauek ere ez dira diruz lagunduko: protokoloa, ordezkaritza, luxuzkoak, inbertsioak, azpiegiturak, ez eta otorduak, gonbitak eta kirol jardueran benetan berezko jotzen ez direnak ere.

##### 4. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke kirol elkarte eta erakunde publiko zein pribatuak, irabazteko xederik gabe eratuak, sozietatearen egoitza Iruña Okan izanik edo jarduera udalerririk horretan eginik, legez eratuak edo erregistratuak badaude. (Salbu eta Langraiz kirol kluba)

## 5. Dirulaguntza xede diren jarduerak

Iruña Okako Udalarentzat interesgarriak eta haren eremuan garrantzitsuak diren kirol jarduerak dira diruz laguntzeko modukoak. Modu horretan, honelako kirol ekitaldiei emango die babesa, lehentasunez:

- Lehiaketa eta federazio liga batean dauden, hainbat udalerritan egiten diren eta kirol arlokoak diren jarduerak.
- Kirol jarduerak. Kirol eskolak. Probintzia, autonomia, nazio eta nazioarteko komunikabideetan eragina daukaten kirol ekitaldiak.

## 6. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Deialdi honetarako bideratu den aurrekontua 2.500 euro da, eta 2017ko udal aurrekontuko 341.434.001 aurrekontu aplikazioaren kontura ordaindu behar da. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango, inola ere, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino gehiago.

— Oinarri hauen arabera jasotzen den dirulaguntza bat ez da bateragarria izango Iruña Okako Udalak jarduera beragatik eman ditzakeen beste dirulaguntza batzuekin.

## 7. Eskaerak aurkezteko modua eta epea

Udalaren bulegoetan eskuratu daitekeen inprimaki normalizatuan aurkeztu beharko dira eskaerak -I. eranskina-

Agiri hauek erantsi behar dira:

- a) Eskaera sinatzen duenaren NANaren edo IFZren fotokopia.
- b) Elkartearen edo erakundearen ordezkari diharduela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
- c) Erakundearen estatutuen fotokopia eta Eusko Jaurlaritzaren elkarte eta erakundeen erregistroan legez eratu eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- d) Jardueraren edo programaren proiektua (helburuak, gauzatzeko egutegia, baliabideak, eta abar).
- e) Jarduera bakoitzaren kostua, kontzeptuka xehatuta eta adierazita horietako zeinetarako eskatu zaizkien edo eskatuko zaizkien laguntzak erakunde publiko zein pribatuei.
- f) Udalerrian eroldaturiko bazkide kopurua identifikatzeko zerrenda

\* Ez dute C) idatz zatian zehaztutako agiriak aurkeztu beharrik lehendik aurkeztuta dituzten erakundeek, nola eta ez den aldaketaren bat gertatu.

Eskaerak, zazpigarren oinarrian adierazten den dokumentazioarekin batera, aurkezteko 2017ko irailaren 30era arteko epea izango da, deialdi hau udalaren iragarki taulan eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

## 8. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztea

8.1. Balorazio irizpidea, kontuan hartuta zenbat parte hartzaile/bazkide izena emanda dauden kirol klub edo elkarteak:

8.2. Balorazio irizpidea, hauexek kontuan hartuta:

- 1) Aurkeztutako kirol jardueraren kalitatea.
- 2) Udalaren interesa.
- 3) Jarduera garatzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta teknikoak.
- 4) Kirola egiteko zabalkunde kanpainak.
- 5) Emakumeen banakako edo taldekako kirolaren presentzia.

## 9. Emate prozedura

9.1. Dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzio organoa Kirol Batzordea izango da, zeina osatuko baitute udalbatzako kideek eta gizarte eta kulturako animazio teknikariak. Proposamena eskatzaileek kalkulaturako diru kopuruari egokitu zaio, zenbat aurrekontu aurreikuspen eta proiektu aurkeztu diren.

9.2. Kirol Batzordeari dagokio aurkeztutako eskaerak egiaztatzea eta ebaluatzea, eta dirulaguntza emateko proposamena egingo du, baina ez da loteslea izango; halaber, onuraduna edo onuradunen zerrenda zehaztuko du; baita diruz lagundutako jardueraren kontzeptuak eta dirulaguntzaren zenbatekoa ere.

9.3. Dirulaguntzen ebazpena, jakinarazpena eta publizitatea.

Tokiko gobernu batzarrak edo organo eskudunak izango du eskumena dirulaguntza eman ala ez ebazteko, eta dirulaguntzaren zenbatekoa emango da kontuan izanda oinarri hauetan ezarritako irizpideak eta urteko deialdian onartutako zenbatekoa, zeina organo eskudunak (Tokiko Gobernu Batzarra) zehaztuko baitu, Balorazio Batzordeak txostena egin ondoren.

## 10. Onuradunen betebeharrak

- a) Dirulaguntza emateko funtsa izan den jarduera gauzatzea.
- b) Korporazioari egiaztatzea jarduera egin dela, bai eta dirulaguntza emateko edo dirulaguntzaz gozatzeko baldintzak edo betebeharrak betetzen direla ere.
- c) Men egitea emandako dirulaguntza eta laguntzekin lotutako egiaztatze ekintzei.
- d) Helburu bererako lortutako beste laguntza edo dirulaguntzen berri ematea korporazioari.

## 11. Dirulaguntzak ordaintzea

- Urteko programetan aldeztu aurretik ordaindu ahal izango da dirulaguntzaren ehuneko 50, gehienez.

- Ezohiko programetan eta jarduera puntualetan, dirulaguntza emateko ebazpenean adierazten den gehieneko epean ordainduko da, aurrez aurkeztuta justifikazioa eta jardueraren memoria.

- Dirulaguntza aldeztu aurretik ordaindu ahal izango da, onuradunak justifikazioa aurreko oinarrian ezartzen den moduan egin baino lehen, baldin eta dirulaguntza ezinbesteko finantzaketa bada jarduera egin ahal izateko.

Dirulaguntzen ehuneko 100 ordaindu aurretik, justifikatu egin beharko da eman diren funtsak emandako helbururako erabili direla.

## 12. Dirulaguntzak justifikatzea

Diruz lagundutako erakundeak behartuta daude emandako dirulaguntzaren kontura egingutako gastuen ehuneko 100 justifikatzera.

2017ko ekitaldiko dirulaguntzak justifikatzeko epea 2017ko abenduaren 15era arte egongo da irekita.

Salbuespen gisa, gastuak 2017ko abenduaren 1a eta 31 bitartean egiten badira, justifikazioa aurkezteko epea 2018ko urtarrilaren 15a arte luzatuko da.

## 13. Justifikazio kontu erraztua

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 75. artikuluan ezarritakoaren arabera, emandako dirulaguntza justifikatzeko, udalean aurkeztu beharko da gastuaren justifikazio kontu erraztua, II. eranskineko ereduaren eta hamaikagarren klausulan ezarritako epean, agiri hauekin batera:

a) Jarduera txostena, zeinak egiaztatu beharko baitu bete direla dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak, gauzatutako ekintzak eta lortutako emaitzak adierazita.

b) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, datu hauekin: hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, agiria eman den eguna eta, hala badagokio, ordainketa eguna. Dirulaguntza zenbatetsitako aurrekontu baten arabera eman bada, egondako desbideratzeak adierazi beharko dira.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Dirulaguntza ematen duen organoak, oinarri arauetan ezartzen diren laginketa tekniken bitartez, egoki jotzen dituen justifikazioak egiaztatuko ditu, dirulaguntza behar bezala erabili dela zentzuz ziurtatzeko, eta horretarako, onuradunari eskatu ahal izango dio helarazteko hautatu dituen gastu justifikaziorako agiriak.

#### **14. Dirulaguntzak aldatzea**

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira eta, betiere, edozein entitate publiko edo pribatuk xede bererako emandako dirulaguntzak edo laguntzak lortzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egingo da eta dirulaguntzaren zati bat itzuli egin beharko da.

#### **15. Babesa**

Deialdi honen bidez dirulaguntza jasotzen duten erakundeak behartuta daude berariaz eta modu argian adieraztera Iruña Okako Udalaren babesa izan dutela, diruz lagundutako programa edo jarduerari buruz argitaratzen dituzten egitarau, iragartzeko kartel eta argazkietan, eta gainerako material fotografiko, idatzi nahiz soinuuzkoetan.

Halaber, autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira jarduerak iragaritzeko egitarau eta karteletan.

Orobat, saiatu egin beharko dute aplikatzen, ahal den neurrian, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoak, ezartzen dituen printzipio orokorrak.

#### **16. Dirulaguntza galtzea**

Erakunde onuradunek deialdi honen bidez emandako dirulaguntzak gal ditzakete, aurrez espedientea irekita, honako kasu hauetan:

a) Aurkeztutako eskaeran eta agirietan datu faltsuak jarri badira.

b) Emandako dirulaguntza ez bada erabili aurkeztu eta onartutako programarako.

c) Likidazioak aurkezteko epea amaitu eta, berariaz eskatu arren, aurkezten ez badira.

d) Dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste dirulaguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, gainditzen badu onuradunari diruz lagundu zaion jardueraren kostua.

e) Oro har, oinarri hauetan edo dirulaguntzak emateko erabakian finkatutako betebeharren bat konplitzen ez bada.

#### **17. Garapena**

Alkate-lehendakariak deialdia garatzeko egoki jotzen diren ebazpenak emango ditu, eta behar diren ekintzak egin ahalko ditu onuradunei datuak eskatzeko, eta ziurtatzeko aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta oinarrietan araututakoa bete egin dela. Horretarako, onuradunek beren gain hartzen dute egiten dituzten jardueri buruzko datu eta agiriak emateko konpromisoa, udalak hala eskatzen dienean.

**18. Interpretazioa**

Oinarri hauek interpretatzean edozein zalantza sortuz gero, udalaren kasuan kasuko batzordeak ebatziko du.

Oinarri hauetan xedatu gabekoetan lege-arau hauetan xedatutakoa aplikatuko da: aurrekontua gauzatzeko udal arauan jasotako oinarrizko arauak eta aplikatzekoak diren gainerakoak; Iruña Okako Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, dirulaguntzen araudi orokorra onartzen duena.

**19. Errekurtsoak**

Deialdi hau zein haren ondorioz sortutako administrazio egintza oro aurkaratu daiteke, administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen legeak ezarritako kasuetan eta bertan jasotzen den eran.

**20. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn, udalaren iragarki taulan eta ohiko leku publikoetan argitaratuko da, eta udalerrian ahalik eta zabalkunde handiena emango zaio.

Iruña Oka, 2017ko uztailaren 13a

*Alkate-lehendakaria*

**JOSE JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA**